

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

518

AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 16koa, Hezkuntzako sailburuarena, «Santa María Hijas de la Cruz» Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren baimena iraungitzea onartzen duena, udalerrri bereko «Santa Eulalia» Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe pribatuan irakaskuntzak integratzearen ondorioz, eta ikastetxe horren baimena aldatzen duena.

Santurtziko (Bizkaia) «Santa María Hijas de la Cruz» Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren titularra den «Patronato Santa Eulalia» erakundeak eskatuta (kodeak: 014812 eta 48007351) hasitako espedientea aztertu da. Espediente horretan ikastetxe horri emandako irekitzeko eta jardunean jartzeko baimena azkentzeko eskatzen da, ikastetxe horrek baimenduta dituen irakaskuntzak udalerrri bereko «Santa Eulalia» Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe pribatuan integratzeagatik (kodeak: 014811 eta 48007399). Erakunde eskatzailea ere ikastetxe horren titularra da.

Espediente horren izapideak araudiak ezarritako prozedura jarraituz egin dira; gainera, indarrean dauden arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio eta arlo horretan eskumena duten erakundeek txostena egin dute.

Arau hauek hartu dira kontuan: Heziketarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoa; Ikastetxe pribatuetan unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak emateko baimenei buruzko apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua; otsailaren 12ko 131/2010 Errege Dekretuak aldatzen duena eta otsailaren 12ko 132/2010 Errege Dekretua, haur hezkuntzako bigarren zikloko, lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeen gutxieneko baldintzak ezartzen dituena eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako legeak. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2023-2024 ikasturtetik aurrera, ondoren zehazten den Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren irekitzeko eta jardunean jartzeko baimena iraungitzea onartzea, ikastetxe horren irakaskuntzak Santurtziko (Bizkaia) «Santa Eulalia» Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe pribatuan integratuta daudelako:

Kode-zenbakiak: 014812 (EAE) eta 48007351 (unibertsala).

Izen orokorra: Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatua.

Izen espezifikoa: «Santa María Hijas de la Cruz».

Titularra: «Patronato Santa Eulalia»

Helbidea: Sabino Arana, 1.

Udalerrria: Santurtzi.

Lurralde Historikoa: Bizkaia.

Bigarrena.– Lehenengo puntuan adierazitako ikastetxearen baimena iraungitzea, 2023ko irailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta une horretan Hezkuntza Saileko ikastetxe ez unibertsitarioen erregistroan baja emango zaio.

Hirugarrena.– Integrazioaren ondorioz, Santurtziko (Bizkaia) «Santa Eulalia» Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe pribatuari unitateak eta irakaskuntzak gehitzeko baimena ematea. 2023-2024 ikasturteik aurrera, ikastetxe hori Hezkuntza Sailaren Unibertsitateaz kanpoko Ikastetxeen Erregistroan inskribatuko da, erregistro-datu hauekin:

Kode-zenbakiak: 014811 (EAE) eta 48007399 (unibertsala).

Izen orokorra: Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatua.

Izen espezifikoak: «Santa Eulalia».

Titularra: «Patronato Santa Eulalia».

Helbidea: Jose Miguel Barandiaran, 23.

Udalerria: Santurtzi.

Lurralde historikoa: Bizkaia.

Baimendutako irakaskuntzak:

– Haur Hezkuntzako 1. zikloa: 6 unitate, honako edukierakoak.

- 2 unitate 0-1 urte bitarteko haurrentzat, 8 ikaspostuko edukierakoa bakoitza.

- 2 unitate 1-2 urte bitarteko haurrentzat, 13 ikaspostuko edukierakoa bakoitza.

- 2 unitate 2-3 urte bitarteko haurrentzat, 18 ikaspostuko edukierakoa bakoitza.

– Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 6 unitate, 25 ikaspostuko edukierakoa bakoitza.

– Lehen Hezkuntza: 12 unitate, 25 ikaspostuko edukierakoa bakoitza.

– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 8 unitate, 30 ikaspostuko edukierakoa bakoitza.

– Hezkuntza berezia:

- 4 gela ireki.

- Gela egonkor bat.

Laugarrena.– Hirugarren puntuan aipatzen den ikastetxearen erakunde titularrak indarrean dagoen araudia bete beharko du, ikaspostu-kopuruari, ekipamenduari, titulazio akademikoari, irakasleen hizkuntza-eskakizunari eta indarrean dagoen eta aplikagarri den gainerako legeriari dagokienez. Horrez gain, emandako baimena berrikusteko eskatu beharko du, ikastetxearen erregistroko edozein datu aldatu behar denean. Bestela, emandako baimena baliogabetu egingo litzateke.

Era berean ikastetxe horrek martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikuntzako Kode Teknikoa bete beharko du, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higie, osasun, akustika, bizigarritasun, segurtasun eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxearen titularraren erantzukizuna izango da baldintza horiek betetzea.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetan dagoen baimen-emateak ez du esan nahi hezkuntza-itunen araubidearen edo dirulaguntzen deialdien bitartez laguntzarik lortuko denik.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo

2024ko urtarrilaren 31, asteazkena

egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 16a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.